



BARREN  
TOKIAREN



# Lesbosen boluntario



# MGS

## Aseguruak

Kalikatatea eta Zerbitzuan Finkatua  
ZU ETA ZURE FAMILIAREN LASAITASUNERAKO ASEGURUAK

### GAIZKA CASAREJOS CRUZ

Jausoro plaza 1 · 20870 Elgoibar

T/ 943 742 699

gaizkacasarejosacruz@mgs.es

Aseguru Agente eskusiboak CO7944173474L

JOSE ANTONIO GODOY CASTRO izan da  
aurtengo bezeroen artean zozketatu den tabletaren irabazlea.

#### ASEGURU MOTA GUZTIAK

- Auto aseguruak
- Etxe aseguruak
- Istripu aseguruak
- Gaixotasun aseguruak
- Aurretze eta jubilazio planak
- Bizitza aseguruak
- Diru inbertsioak
- \* Inverseguro (kapital ziurtatuarekin)
- \* PPA desgrabatzeko eta kapital ziurtatua



[www.mgs.es](http://www.mgs.es)

**euskarak  
batzen  
gaitu**  
EL EUSKERA  
NOS UNE

**UDAL  
EUSKALTEGIAK**  
euskara ikasleak • Clases de euskara



CURSO **15/16** IKASTURTEA

## 15-16 IKASTURTEA

### Matrikulaldia zabalik

Izena emateko epea  
otsailaren 5era arte.

Langabetu, ikasle eta gurasoek,  
**MATRIKULA ERDIA**

Bekatzeko sistema ikasturte bukaeran

Etor zaitez eta informazio  
guztia emango dizugu.

ELGOIBAR: 09:00 – 13:00 / 14:30 - 17:30

DEBABA UDAL EUSKALTEGIA

Kalebarren plaza, 2 – Tel.: 943 742 731  
[udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus](mailto:udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus)



ANA ALBERDI



## “Zuk zer gomendatuko zenieke merkealdietara joaten diren emakume eta gizonezkoei? Zertan merezi du dirua gastatzea?”

**K**aixo Eneko! Herbeheretatik idazten dizut berriz ere. Euskal Herrian zenbait aste pasa ostean itzuli gara hona beste deboraldi, oraingo honetan, motz baterako. Iritsi nintzen egun berean antzeman nuen tenperaturak behera egin zuela azken asteotan; hau omen da benetako negua hemen. Hori ikusita (edo sentituta), pentsatu nuen merkealdiak momentu ona zirela jaka bero eta potolo bat erosteko.

Sorpresa hartu nuen, ordea, askotan erosi izan dudan denda batean sartu eta denboraldi hasieratik esekita ikusi izan dudan jaka lodia “kolekzio berria” izenpean ikusi nuenean. “Benetan?”, galdetu nion nire buruari, sinetsi ezinda alde batetik, eta desengainatuta bestetik. Moda ikasle izanda, ba al dakizu, Eneko, zergatik erabiltzen duten arropa marka handiek estrategia hori? Zein

da helburua? Bezeroa engainatzea? Zein irizpide erabiltzen dira, enpresa gisa, “kolekzio berria” zer den erabakitzeke?

Aurten bezalaxe, beharrezkoak eta prezioz altuagoak diren jantziak erosteko aprobeztatzen ditut eskaintza bereziak; egunero erabiltzen dudan kamiseta *basiko* on bat, galtza bakeroak, jaka lodiak edo zapatak izaten dira listan lehen postuak lortzen dituzten horiek. Hala ere, kapritxoren bat edo beste ere erortzen da, ez dizut gezurrik esango.

Zuk zer gomendatuko zenieke merkealdietara joaten diren emakumei eta gizonezkoei? Zertan merezi du dirua gastatzea eskaintza bereziak datozenean? Eta bestalde, zer egin dezakegu ni bezala engainatuta sentiitzen garenok? Nola ekidin ditzakegu horrelako egoerak?



ENEKO ITURBE



## “Look basikoak erosteko asmoa baduzu, kalitate hobea duten marketara joko nuke”

**N**ik berriz, oraingo honetan, Madrildik botako dizut erantzuna, Ana, lanak hona ekarri bainau denboraldi baterako. Aldaketaren ondorioz eta denbora gehiegi izan ez dudan arren, ni ere ibili naiz hainbat dendatan barrena, merkealdiek erakarrita. Hala eta guztiz, ez dut gehiegi disfrutatu, denboraldi osoan zehar ikusi ditudan *look* txarrenak besterik ez baitira gelditzen.

Nik ere badut pare bat jantzi erosteko beharra, ordea. Eguneroko *jeans* batzuk, alkandorak edo hain komodoak diren kamiseta horiek. Ilusio handirik sortzen ez badidate ere merke erosteko esperantza daukat, eta etxera pozik joango nintzateke, hala balitz.

Enpresa handi hauek, kolekzio baten atzean, bi proposamen dituzte: jantzi batzuek markaren irudia eta tendentzien joera markatzen dute, beste jantzi batzuk, berriz, salmenten arabera disei-

natzen dira, zuk gustuko zenuen jaka bezalaxe. Oso erraz saltzen diren produktuak dira, normalean oso modan egoten direnak eta jendeak ezagutzen eta espero dituenak. Beraz, erraz saldu daitezkeen jantziak direnez, posible da merkealdirik gabe ikustea.

Merkealdien zain egon diren haientzat, gomendioa hauxe da: *look* basikoak erosteko asmoa baduzu, kalitate hobea duten marka haietara joko nuke; luzaroan eduki dezakegun zapata pare bat, larruzko perfektoren bat (udan ere hain ongi erabili daitekeena), *blazer* sastrero bat edo, zergatik ez, eguneroko poltsa eder bat ere bai, noski! Baina ez ahaztu, merkealdia luzaroan buruan bueltaka ibili diren kapritxo horiek lortzeko momentua ere badela. Hortaz, aurkituz gero, eros ezazu!

Azkenik, inoiz engainaturik sentitu garenontzat, onena arropa horretaz ahaztea da, duen prezioa pagatu ezean, ezer gutxi egin genezake eta!

## MIKEL ARTOLA

## Ekonomialaria



## Beharra

eta lanaren esparruan "errendimenduaren gizar-tea" deitutakoa gordinki nagusituz doa: urgentzia, lehiakortasuna, autoexijentzia. Eta berarekin, jakina, antsietatea, desmotibazioa, depresioa.

**"Gizakia, duintasunez babesten ez bada, ez harritu gero eraikitako gizarteaz"**

Produktuen merkatuen gisa, langile-ena ere bitan banatzen ari da: gero eta txikiagoa den elite miresgarria goian, eta globalizazioak egituratu duen *commodity* zabala behean, *low cost*, ekoizpenak eta zerbitzuek distantzien logika gainditu zituztenetik. Tar-

tean, pertsona andana, behekoaren magnetismoa antzemanez.

Lana eta aisialdiaren auzi potolo honetan teknologiak ere badu zeresanik; erosotasun eta aurrerabide bikainen parkeko, ofizioen birrintze beldurgarria; zein lanpostu dago salbu? Robotek pentsatzen duteneko ere ez omen dago urrun. Sormenaren kaltetan, gure lan eginkizun nagusia makinaren zaintzaile izatea izango denekoa.

Lehen ere sortzen joan diren bidetik, sortuko dira lanbide berriak, baina norbanakoa, gizakia, duintasunez babesten ez bada, ez harritu gero eraikitako gizarteaz. Antolakuntza horizontalagoak, lan-ibilbide malguagoak eta motibazioa zokoratzen ez duten inguruneak lagungarriak lirateke. Lanarekiko atxikimendua eta esfortzua kultura ere, ezinbesteko osagai. Eta hazkundearen gurgil zorotik irten eta egin beharreko bideaz hausnartzeko patxada, zer esanik ez.

Lana hitzak sinonimo ezin indartsuago bat dauka euskaraz: beharra. Beharrrak asebeteta edukitzeagatik lan egiteko premiarik ez duen gizarte ez dakit bideragarria den, utopikoa den, distopikoa den. Baina bitartean, langabeziaren atzaparrak ez kamustez gain, lan baldintzen gogortzeak estututako langileen kopuruak gorantz darrai. Errentagarritasuna bilakatu da ekintza gehienen ardatz, irizpide ekonomikoetatik aldentuta beharko luketen jardunetan ere bai,



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)  
Publizitatea: 943 743 704 - [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaldua Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:

elgoibar  
EUSKALDESKO

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► DEBABARRENEKO ORFEOIA

Beti pentsatu izan dut gure inguruan inoiz edo oso gutxitan ikusi izan ditugula orkestra eta abesbatza famatu edo nagusiek eskainitako musika ekintzak. Horretarako, Donostia, Bilbo edo hiriburu handietara jo behar izan dugu.

Musika koral sinfonikoa, oso gutxitan entzun edo ikusten da gure inguruan. Entzuten dira aldiz beste musika mota batzuk, Hego Amerikar musikako Eibarren adibidez, abesbatzak Elgoibarren eta lurraldeko beste herrietan, abesbatza popularrak kaleetan, baina abestutako musika sinfonikoa oso gutxi.

Abanikoa ez da musika klasikora bakarrik murrizten, filma asko daude musika sinfonikoa edo musika korala dutenak

“banda sonora”-tzat.

Abestea gustuko duten pertsona multzo bat osatzea da ideia. Abestu, musika egin eta ondo pasatu bien bitartean.

Entseguak hamabostetik behin izango dira, asteburuetan, eta printzipioz pare bat emanaldi eskainiko ditugu urtean zehar.

Idea gustukoa izatea espero dut, animatu zaitezte, eta abestea gustuko duen edonork eman dezake izena. (Gizonezkoen ahotsak behar dira batez ere).

Debabarrenekoa bazara eta proiektu honetan parte hartu nahi baduzu, idatzi helbide elektronikoa honetara: [dborfeoia@gmail.com](mailto:dborfeoia@gmail.com)

**José Miguel Laskurain**  
(Debabarreneko orfeoia)

### ► ESKERRIK ASKO

Arnaldo Askatu plataformak eskerrak luzatu nahi dizkiezue pasa den ostiraleko Ruper Ordorika eta bere taldearen kontzertura hurbildu zineten eta aretoa bete zenuten herritar guztioi. Noski, baita ere antolaketan lagundu diguzuen guztioi.

Benetan kontzertu eder eta hunkigarriaz gozatu ahal izan genuen, zenbait us-tekabeko pozgari izan zituen gainera.

Ruperri eta bere taldeari ere eskerrak bihotzez bere inplikazio eta profesionaltasunagatik!

Hala ere, espero dezagun arrazoi hauengatik antolatzen den azken kontzertua izatea.

**Arnaldo Askatu Politika Askatu**  
Herri ekimena



## Gaudencio Sierra Pinto

2015eko abenduaren 19an hil zen, 76 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

**Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan**



## Jesus Mari Aizpurua Zabala

2016ko urtarrilaren 7an hil zen,  
Villamediana de Iregua-n (Errioxa), 65 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Quintiliano Gutiérrez González

2016ko urtarrilaren 10ean hil zen, 77 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## San Bartolome elizaren 300. urteurrena ospatzeko egitarau betea antolatu du parrokiak beste eragile batzuekin lankidetzan

Eliztarrentzat urte seinalatua izango da 2016a Elgoibarren, bi data esanguratsu ospatzeko urte guztirako egitaraua prestatu baitu Elgoibarko parrokiak, Elgoibarko Udalarekin eta herriko beste hainbat eragilerekin elkarlanean. Batetik, Kalegoengo San Bartolome parrokian lehen meza eskaini zutela 300 urte beteko dira abenduaren 30ean. Bestetik, San Frantzisko komentuari ohia fun-dazioaren 500. urteurrena izango da azaroaren 3an.

Bi urteurrenak ospatzeko kultura zein erlijio ekintzez osatutako egitarau betea prestatu du Elgoibarko Parrokiak, besteak beste, hitzaldiak, bisita gidatuak, mendi irteerak, kontzertuak eta erakusketak antolatu dituzte. Ospakizunek urte guztia hartuko dute, urtariletik abendura. Horretarako honako erakunde eta eragile hauen lankidetzan izan dute: Udala, Musika eta Dantza Fundazioa



(Emudafe), Inazio Bereziartua Musika Eskola, Altzolatarren Dorretxea elkarteak, Morkaiko mendizale taldea, Hydrolur eta Txarriduna.

Bartolome eliza egiteko lanak 1646an hasi zituzten eta 1716an inauguratu zuten. Lehen meza Calohorrako apezpikuak eman behar bazuen ere, azkenean Antonio Etxezabal Eibarko bikiarioak eskaini behar izan zuten, 1716ko abenduaren 30ean.

Horrez gain, San Frantzisko komentuari arrastorik geratzen ez bada ere, 1516tik 1891ra bitartean egon zen Kalebarren plaza inguruan. Komentuko parte zen San Frantzisko eliza, baina, XX. mendera arte ez zuten eraitsi, 1924ra arte, hain justu ere.

Parrokiak 2016 honetarako antolatutako egitaraua eta aurreikusitako ekitaldiak kontsultatzeko, [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunera jo daiteke.

## Trenbide kaleko aparkalekuak hobetzeko lanak uda baino lehen amaituko direla iragarri du Udalak



Trenbide kalean autoentzako aparkalekuak hobetzeko lanak aurki hasiko dira eta uda amaitu baino lehen amaituko dituzte, Udalaren arabera (156.721 euro). Bi aukera aztertzen ari dira: aparkalekuak gaur egun dauden moduan laga ala erdibitzaile bat jarri eta aparkalekuak erdibitzaile horren albo banatara egitea.

Jaurlaritza eta Udala 1,2 milioi euro bideratzen ari dira guztira Elgoibarren trenbide-sarea integratzeko eta mugikortasuna hobetzeko. Trenbide kaleko lanok horren barruan daude, trenbide eta Juan Mugertza kaleen artean eginda dauden bi igogailuak bezalaxe (485.629 euro). Ana Oregi Ingurumen eta Lurralde Antolaketako sailburuak ingurua bisitatu zuen eguaztenean. Jaurlaritzaren ekarpena 500.000 eurokoa izango da.

Santa Anako babes ofizialeko etxeak dauden inguruan, oinezkoentzako pasabide bat egitea aurreikusita dago (415.944 euro).

## Joseba Zinkunegik ez du berriz kartzelara joan behar izango, defentsak, fiskaltzak eta herri akusazioek akordioa lortu ondoren

Joseba Zinkunegi elgoibartarra eta 04/08 sumarioan auzipetutako beste 34 militante independentistak ez dute kartzelara joan behar izango, eguaztenean defentsak, fiskaltza eta herri akusazioak ados jarri ondoren. Urte eta erdi eta bi urteko kartzela zigorrak ezarri dizkiete auzipetuei, baina epaiketaren aurretik kartzelan egon zirenez, espetxea saihestu ahal izango dute guztiek. Epaimahaiak ontzat jo du akordioa. Joseba Zinkunegiren kasuan, 20 hilabeteko kartzela zigorra jarri diote; lehenago bi urte egin zituen kartzelan.

Epaiaketa abenduan hasi zen. 04/08 sumarioan hamarna urteko kartzela zigorra eskatzen zuen fiskaltzak auzipetuontzat, ezker abertzaleko buruzagi izatea leporatuta.

Aldeek lortutako akordioaren arabera, auzipetuek aitortu dute legeriaren aurka jardun zutela. "Indarkeriazko jarduera ororen" aurkako konpromisoa azaldu dute, eta espero dute aitortza horrek biktimen oinazearen "erreparaziorako" balio izatea. Horrekin batera, AVTk eta Dignidad y Justiciak onartu dute aitortza horren ondorioz zigorrak murriztea, eta ondorioz auzietuek kartzela saihestea.



## Soarteren idia kalerik kale ibili zen zapatuan, ihes egin eta gero



Arg.: Ion Arrieta

Soarteren idi batek makaleko sustoa eman zien elgoibartarrei zapatuan, Artazo eta Soarteren arteko dema baino ordu batzuk lehenago. Goizean, Sigmako probalekura pisatzera eraman zituztenean, idi batek ihes egin zuen. Trenbide kaletik, kiroldegi aldera joan eta handik Ermuarango Ibarrenean hartu ahal izan zuten. Atzera berriz pisatzera eraman zutenean bigarren aldiz ere hanka egin zuen. Kiroldegia baino aurreragoxeago harrapatu zuten. Zorionez ez zen ezbeharririk gertatu.

Idi dema gauean jokatu zen. Artazoren idi pareak irabazi zuen, 48 plaza lortuta. Soarteren idiek, berriz, 46 plaza egin zituzten.

## Gurutze Gorriak herritarrei eskerrak eman dizkie jostailuen bilketan inplikatzegatik

Herriko ume behartsuek ere jostailuak jasotzeko aukera bermatu nahi izan zuen Elgoibarko Gurutze Gorriak, jostailuaren kanpainaren bidez. "Oso pozik gaude kanpainarekin, 130 ume ingururi banatu dizkiegu jada jostailuak eta ezerk ez du haien alaitasuna ordaintzen!", adierazi du Gurutze Gorriak. Erakunde horrek herrian egindako beste kanpainen atara du umeen zerrenda eta beti ere herriko familiarik txiroenak hartu ditu kontuan. Jostailuak berriak, ez-sexistak eta ez-belikoak izan dira kasu guztietan.

"Guretzako oso garrantzitsua da eskerrak ematen lagundu diguten herritarrei eta bereziki Besa, Danobatgroup eta Etxe-Tar lantegiei".

Horrez gain, deialdi bat egin du. "Hasi dugun urte honetarako gizarte laguntza inguruko ekintza mordoxka bat daukagu eta boluntario bila gabilta. Animatzen den inork dei egin dezala mesedez hurrengo zenbarika: 607 601 717".

## Zeramika ikastaroa umeentzat

Egurrek zeramika ikastaroa antolatu du 6 urteko gorako umeentzat, eguazten arratsaldeetarako. Informazioa eta izenematea: 666 557 538.



# Poloniako argi kutxak Europako kultur hiriburutik Elgoibarrera

**Anna Nosowicz artista poloniarra Elgoibarren da. Donostia Europako Kultur Hiriburu izendatu zuten 2016rako eta horren baitako proiektu baten harira Elgoibarrera ekarri du arte lanak egiteko bere teknika berezi bat. Elgoibarko Herri Eskolako ikasleekin garatu du proiektua eta emaitza Kalegoen plazan ikusi ahal izango da urtarrilaren 15etik 22ra bitartean. Plastikoa birziklatuz koloretako argi-kutxak egin dituzte. Nosowiczek Donostian egin zuen bezala, Elgoibarko hainbat haur eta gaztetxok herriko pertsonen erretratu abstraktuak egin dituzte eta guztiak batuz herria bera islatu dute.**

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



*Plastikozko poltsak forma eta neurri askotara moztu eta pegatu ondoren forma emanez lortzen ditu argi kutxak Anna Nosowiczek.*

Ilunak beti ekartzen du bere argia eta hainbat egunetan Kalegoen modu berezian argituko da ilunak plaza hartuko duenean. Izan ere, *Poloniako argiak* erakusketa egongo da ikusgai. Herri Eskolako ume eta gaztetxoek Anna Nosowicz artista poloniarren teknika erabiliz plastikozko poltsak birziklatuz argi kutxak egin dituzte.

Mikel Juaristi Herri Eskolako irakasleak koordinatu du ikastetxean proiektua. Izan ere, orain dela hiru urte elkarlanean hasi ziren Euskal Herriko Unibertsitatearekin ikastetxeetako hezkuntza artistikoari erreparatu eta urtero hainbat ekintza egin. Artikertuz taldea sortu zuten gero hezkuntza artearen bidez eraldatzeko helburuarekin. Taldean Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, Batxillergoko eta Unibertsitateko irakasleak eta kultura eragileak elkartzen dira, Donostia 2016 eta Tabakalerako hezkuntza saila esaterako. Donostia 2016k hainbat

proiektu eskaini zituen eta Elgoibarko Herri Eskola Anna Nosowiczekin egitasmoak argitu zuen.

## DONOSTIARREN ERRETRATUAK

Bere hiria Wroslaw, Donostia bezalaxe, Europako Kultur Hiriburua da aurten. Iaz, urrian, *Joan-Etorriak* izeneko truke programa baten bitartez Donostia bizileku artistikotzat hartu zuen Nosowiczek eta Polonian umeekin lan egiten duenez proiektu honen zati bat ikasleekin tailerrak egitea da.

Pintura lantzen du, batik bat oleoak eta akrilikoak erabiliz teknika tradizionalekin. Baina argiarekin lan egitea interesatzen zitzaiolako heldu zion proiektuari. Birziklatutako materiala erabiliz egin ditu argi kutxak eta horren bidez Donostiaren argazki orokorra ateratzen saiatu zen. "Elkarrizketak izan nituen donostiarrekin bizilagunak eta hiria bera hobeto ezagutzeko. Horren bitartez



## “Nire lanak

*abstraktuak dira,*

*jendeak erretratuak*

*direla jakinda,*

*‘hor begi bat ikusi*

*dut, han ahoa...’*

*esaten badu ere”*

haien erretratuak egin eta guztienak elkartuz Donostiarena, hiria bera kanpora zabaltzeko”. Erretratuak aipatuta askoren buruetara argazkiak etorri badira ere, Anna Nosowiczenak eskulturak dira. “Nire lanak abstraktuak dira. Jendeak, erretratuak direla jakinda, esaten du ‘hor begi bat ikusi dut, han ahoa’, baina berez ez dira modu hortan islatzen. Esaldiak ere idazten ditut elkarrizketatutako jendeak esandako hitz edo esaldi esanguratsuak, tokiak utzi dion arrastoa edo marka adieraziz. Adibidez, ‘Donostia niretzat lasaitasuna da’...”.

### ERAKUSKETA

Donostian zegoela etorri zen lehen aldiz Herri Eskolara artista eta lehen pausuk erakutsita gaztetxoak lanean hasi ziren. “Nik Donostian egin nuena seigarren mailako gela bateko ikasleek Elgoibarren egin zuten. Elgoibarko hainbat jende elkarrizketatu, erretratuak egin eta argi-kutxak muntatu”. Poloniako artistek Donostian egindako erakusketan Nosowic-

zen lanekin batera elgoibartarren ere jarri zituzten.

Erakusketa muntatzen ari zirela Mikel Juaristi irakasleak proiektua Elgoibarrera ekartzea erabaki zuen eta artista Poloniatik etorri denerako lana aurreratuta aurkitu du eta borobiltzen lagundu die umeei lana nola egin duten kontatu dioten bitartean.

Mikel Juaristik azaldu digunez, “seigarren mailako ikasleak lanean hasi zirenean esaten zuten elgoibartarrak zailak zirela eta koloreak ilunak ziren. Jendeak ez zituen beren galderak erantzun nahi, ikasleak beren intimitatera sartzen ari zirela sentitzen zuten. Ume txikiak joan zirenean, ordea, irribarrez erantzun zieten eta gerturatu egiten zitzaizkien laguntzeko. Hasieran zaila eta iluna izan zen hura pixkanaka koloretsuagoa izan da bukaerarako”.


Kalegoenen, beraz, Elgoibarko herritarren erretratuak kolore eta argiekin eginak egongo dira. Argi horiek islatuko dute nola ikusten dituzten eskolako umeei herria eta herritarrak.

## ILUNETIK ARGIRA PAUSOZ PAUSO

Urrian erakutsi zien artista poloniarrek seigarren mailako ikasleei argi-kutxak nola egin behar zituzten, eta beraiek Annaren lekua hartuta, txikiagoen irakasle izan ziren gero. Abenduan ibili ziren eskolan esku lanak egiten eta Nosowicz hemen izan denean azken ukituak ematen eta lanak argitzen lagundu die. Ilunetik argirantzako bidean honako pausoak eman dituzte:

- ◆ Aurrez erabilitako koloretako plastikozko poltsak pilatu.
- ◆ Plastikoa moztu, bakoitzak nahi duen tamainan eta nahi duen forma eman.
- ◆ Zatitxoekin konposizio bat egin.
- ◆ Gainean eta azpian laborako papera jarri eta plantxa pasa berotasunarekin plastikoei bat egiteko.
- ◆ Zati guztiak elkartu eta bolumena eman pertxak erabiliz.
- ◆ Led argia jarri barrutik. Hutsik daudenez, argia plastikoa barrena islatu eta lanpara baten itxura hartuko du.
- ◆ Eskultura eta margolan efektua izango dute zintzilikatutakoan.





Arg.: Wilhelm Erik Winteridh

“Pentsatzen duguna baino askoz gehiago lagundu dezakegu hemendik bertatik”



GORRIAK ikusterik nahi ez eta bizimodu duin baten bila milaka pertsona abiatzen dira egunero. Turkiako bidea aukeratzen dute batzuek. Lehorrean ehunka kilometro egin ondoren, Zodiac batean emakumeak zein gizonak, agureak zein jaiotako berriak pilatzen dira, nabigatzea zer den jakin gabe, gabe, haize zakarrez eta hotzez. 10-15 kilometrora, Lesbos uhartera, Europako atea. Sorosle boluntarioek ontzia detektatu eta kanpamenduetako boluntarioei abisatuko diete, dena prest izan dezaten (arropa lehorra, osasun arreta, berotasuna, janaria...). Koro Gabiola eta Iñaki Iraola Lesbosen izan dira errefuxiatuak artatzen, Gabonetako oporraldian, baina oraindik han dute burua; oraindik jarraitzen dute hango berri jasotzen, kide izan dituzten besteekin hartu-emanetan. Oraindik ere dirua biltzen jarraitzen dute (ES87 3035 0007 22 0071131890). Diru mugimendu guztiak oso argi eta garbi jasotzen dituzte Facebooken.

- OIER NARBAIZA -

## ► KORO GABIOLA ETA IÑAKI IRAOLA BOLUNTARIOAK LESBOSEN

### ◆ Nolakoa da egun bat han?

**Iñaki:** Ailegatu ginenean, 27 goizean, elkartu ginen Lighthouse Refugee Relief elkartekoekin eta esplikatu ziguten hiru txanda zeudela (goizekoa, arratsaldekoa eta gaukoa). Jendea falta zen txandetan izena eman genuen. Normalean aurreko errelebokoak pasatzen dizu informazioa

eta barkurik ez dagoen momentuan beti saiatu beharra dago dena atonduta uzten: aldagelak prest, tea bero-epel, zopa eginda, sandwichak prestatuta, eta ura irakinda medikuntza gaietarako. Orduan barkua etortzen denean, hasi behar duzu jendeari arropa aldatzen tea zerbitzatzen eta abar.

### ◆ Nolakoa izan da zuen lan-taldea?

**I:** Hasierakoak suediarrek ziren. Light House Reliefekoak irailean gerturatu ziren hara, orduan ez zegoen ezer antolatuta. Ikusi zuten zer behar zeuden eta boluntario batzuk elkartu ziren eta elkartea sortu zuten. Azaroaren hasiera aldera kanpamendu txiki bat muntatzen hasi ziren.





Zodiac ontzietan pilatuta, munduko hainbat lekutatik iristen dira errefuxiatuak Lesbos uhartera. Goiko irudian, Koro Gabiolaren atzekal-deko salbamentu-jakek erakusten dute exodoaren tamaina.

#### ◆ Zenbat lagun talde bakoitzean?

**I:** Taldeetan gutxienez lau lagunek egon behar dute. Goizeko eta arratsaldekoan koordinatzaile bat egoten da.

#### ◆ Errefuxiatuak iritsitakoan zer egiten zenuen?

**I:** Azken egunotan jende asko zegoen itsasertzean laguntzeko. Azkenean ez bazegoen nahikoa jende sartzen zinen eta laguntzen zenuen. Zodiaca iritsitakoan bi ilara egiten dira eta medikua jartzen da aurrean.

#### ◆ Kanpamendua nola dago antolatuta ontzi bat datorrenerako?

**I:** Pertsona batzuk zaintza postuetan daude eta sorosleen telefonoa dute. Zerbait ikusten dutenean sorosleei deitzen diete eta era berean abisatzen dute kanpaleku batera, ailegatuko diren lekura. Abisatzen duten momentuan generadorea

## “Gurean ez da ezer larririk gertatu. Beste kanpamendu batean pare bat ume hil ziren hotzez”

pizten duzu, tea irakiten jarri berriro, ura irakiten medikuarentzat, aldagelak zabaldu, argia piztu eta hasten da prozesu guztia.

#### ◆ Zer baliabiderekin jardun duzue?

**K:** Ezer larria ez zaigunez tokatu, ondo ibili gara. Zerbait masiboa tokatuz gero, han dagoena ez da nahikoa. Ontzi batean denak urperatuz gero, ez dakit kanpamendua prest egongo litzatekeen. Guk suertea izan dugu, ez da ezer larririk ger-

tatu: hipotermia kasu batzuk bai, baina besterik ez. Hori bai, gu egon garenean irlan, beste kanpamendu batean, pare bat ume hil dira hotzez.

#### ◆ Emozio biziko uneak...

**I:** Kuriosoa izan zen. Behin ari ginen ateratzen jendea ontzi batetik –umeak gurasoengandik banatzen dituzu-. Gero, denak elkartzeko, etorri zen aita, etorri zen ama beste ume batekin, jarri zuen hanka bat eta barre egin zuen; jarri zuen bestea eta lurrera erori zen. Familia osoa ikusi arte agoantatu zuen.

#### ◆ Egunean zenbat errefuxiatu artatu dituzue?

**I:** Gure kanpalekuan 150-250 egunean. Egon da egun bat inor ez dena etorri, 31n: hotz handia egin zuen.

**K:** Irla guztian, egunero 1.000-1.500 sartzen dira.

◆ **Zer kontatzen zizueten errefuxiatuek?**

**I:** Te bat hartzen, haiekin egoteko eduki dugun denbora apurra ez da hainbeste izan. Gehienbat gauetan edo oso goizean iristen ziren barkuak. Batzuek ez zuten kontatzen hainbeste. Beste batzuei mafiek dena lapurtzen zieten: eduki zituzten hiru egun jan gabe, basoan, jo egiten zituzten... Horiek ziren bi muturrak. Eta gero, tartean, denetik egon da. Batzuei Zodiac txalupa enbalatuta uzten zieten eta 50en artean muntatu egin behar zuten, esku-liburuarekin: puztu, uretara bota... eta beldurretan. Ez zekiten hori gdatzen! Eskerrak sorosleak lan handia egiten ari diren!

**K:** Kristoren lana egiten ari dira sorosleak. Lehen egunean emergentzia bat ikustea to-

*“Laguntzeko era asko dago: informazioa partekatzen, arropak biltzen... Eta kanpokoei irribarre egiten”*

katu zitzaigun eta pentsatu genuen dohaintza zati bat haientzako izango zela. Haiek bai, jendea salbatzen ari dira.

◆ **Zer izan da gogorrena?**

**I:** Tentsiorik handiena izan zen gau batean: abisua jaso genuen barku bat ikusi zela eta kanpalekuetan aztoratu ginen. Beste kanpalekukoak irten ziren barkuekin

bila, gauetz. Sekulako olatuak zeuden, hotza. Igo ginen bigilatzerara. Azkenean alarma faltsua izan zen. Momentua izan zen gogorrena. Zero azpiko tenperaturak. Ez zen ezer izan, eskerrak, bestela...

Eta gero kontatzen dituzten gauzak entzutea! Azken egunean gaueko txandan, Pro Aktivakoak irten ziren eta txalupa bat zetorren. Handik 20 minutura etorri ziren. Txalupa bakoitzean 40-50 etortzen ziren. Agertu ziren 15-20 bueltan, oso gutxi, hotez akabatzen. Aurpegi arraroekin. Bat negarrez zegoen, eta lasaitu zenean egon ginen hizketan: 50 zeuden ontzia hartzeko, bezperan naufragio batean 34 hil ziren eta itsaso txarra zegoenez beste 35ek esan zuten bazutela dirua berriz ordaintzeko eta ez zirela joango baina hauek ez zeukaten dirurik berriz ordaintzeko. Beren azken aukera zen! Hori izan zen azken txalupa ikusi genuena.

◆ **Esperientzia honen ostean, zer mezu eman nahi diozue jendeari?**

**K:** Hemendik gauza asko egin daitezkeela. Jende asko dago gauzak egiteko gogoz. Orain arropa bilketan gabilitza, hori antolatzen lagundu daiteke; irakurri eta interneten gauzak partekatzen lagundu (orain adibidez, Sirian siriaturako Madayan janaria sartzea lortuko da presio mediatikoagatik). Pentsatzen dugu ez dugula indarririk...

**I:** ...baina sare sozialek sekulako indarra dute.

**K:** Eta erabili behar dira. Horrela lagundu dezakezu. Eta lagundu dezakezu kanpoko jendeari irribarre bat ematen, besterik gabe. Pentsatzen duguna baino askoz gehiago egin dezakegu hemendik.



Arg.: Deva Smith

*Lesbosera onik iritsitako haurrak, kanpalekuan eginiko eskulanak erakusten.*

## ELGOIBARREN PARRANDAN IBILITAKO SIRIARRA

**B**ehin ontzi bat ailegatu zen kanpalekura siriarrarekin. Hor tartean bazen bat, medikua zena, ingelesa oso ondo menderatzen zuena. Berak gobernatzen zuen pixka bat taldea. Boluntario kataluniar batekin gaztelaniaz hitz egin zuen Iñakik momentu batean eta siriarrak entzun egin zien eta galdetu zien ea nongoak ziren. Espainiako estatukoak zirela esan ziotenean, “nongoak?” galdetu zuen. “Euskal Herrikoa”, erantzun zion Iñakik. Siriarrak berriz: “Nongoa?”. Iñakik “Donostia eta

Bilbo tartekoa, Elgoibarkoa” esan zion. “Elgoibar? Hara parrandan joaten nintzen ni”.

Durangon egon zen bizi izaten urte batzuetan eta larunbatetan Elgoibarrera etortzen zen lagunekin parranda egitera. Gero bere herrialdera bueltatu zen familiarengana, eta sei hilabetera gerratea hasi zen.

Orain berriz ere Europako bidea hartu du, baina oso modu ezberdinean egokitu zaio bidaia egitea.



## ► Pentsaera politiko ezberdineko jendea herri berean elkarrekin bizi daitekeela erakusteko foro bat sortu da



*Ezkerretik hasita, Inaxio Garmendia, Antxon Gurrutxaga, Pello Rubio, Arantza Berasaluze eta Sebas Larrañaga. Arrate Iriondo falta da..*

**B**izikidetza dute oinarri. Askotariko ideologia politikoetako jendea elkartu eta Euskal Herriko gai politikoez hitz egiten dute, elkar errespetatuz eta elkar eraginez. Norberak bere pentsamoldetik eta besteena entzunez.

Bizikidetzari buruzko jardunaldiak antolatu zituen Udalak joan den legealdian eta hainbat partaideri dei egin zieten gero bizikidetza oinarri izango zuen lantaldea osatzeko. Hainbat alderdik ere egin zien parte hartzeko proposamena. 2014an hasi ziren elkartu eta bizikidetza hitz egiten. Inaxio Garmendia, Antxon Gurrutxaga, Pello Rubio, Arantza Berasaluze, Sebas Larrañaga eta Arrate Iriondo dira kideak, eta ez dute inongo alderdi edo elkarte ordezkatzeko, haien burua baino. Baketik zentroko lker Uson izaten dute lagun.

### **Konfiantza eta errespetua**

Gai nagusia bizikidetza bada ere, horren baitan beste gai asko dago. Eguneroko bizitza politikoko gertakizun zehatzez, gertaera gogorrez, biktimez, sufrimenduaz... hitz egiten dute. Etxean landu eta dokumentu eta irakurgaiak ere aztertzen dituzte; biktimei buruzkoak, biolentziaren gainekoak...

Egoera bakoitza modu ezberdinean bizi dutenez, nor bere bizipenak kontatzen eta besteena, errespetuz eta ikuspegi ezberdinak onartuz, entzuten hasi ziren hizketaldiak. Beren ustez kontuan hartu behar da egia osoa ez dela bakoitzarena bakarrik eta ez dela nor berarena inposatu behar. Elkarrekiko konfiantza lortzea izan zen lehen pausoa, hitz egiteko gustura eta eroso egoitea eta iruditzen zaie lortu dutela entzuten ikastea, ulertuz eta besteena azalean jarriz. Behin besteena entzundakoan, ideologia

ezberdinekoak izanez gero, hausnartu eta ondoren erantzun egin behar dela pentsatzen dute.

### **Herritarren partaidetza**

Ezberdin pentsatu arren, beren artean lortu duten konfiantza herrira zabaldu nahi dute orain; kaleko jendeak ere elkarrekin hitz egitea lortzea, hori baita bizikidetzaren oinarria. Lau urte dira ETAk borroka armatua utzi zuela eta Euskal Herrian ez ezik Elgoibarren bertan bizikidetza normaltzeko lana egin behar dela uste dute.

Taldea herriaren aurrean aurkeztuz salto kualitatibo bat eman nahi dute. Elgoibarko alderdi politiko gehienetako zuzendaritzekin eta militanteekin hitz egin dute. Dinamikarekin bat egiteko proposamena egin eta laguntzeko prest agertu dira taldekideak.

Hurrengo pausoa alderdiak beren artean elkartzera litzateke, eta noski, herrian bizikidetza giroa sortzea. Beren lana orain jendearen inplikazioa lortzea dela uste dute, kolore ezberdinetako jendea, politikoki alde guztietakoak, baina herritar arruntak, politikariek badauzkate-eta gai hori lantzeko beren esparruak. Horretarako, elgoibartarrek ateak zabalik dituztela jakinarazi nahi dute eta hileko bigarren martitzenetan elkartzen direla Kultur Etxean 19:00etan. Taldean parte hartzeko euskaraz ulertu behar da. Izan ere, orain daudenek gaztelaniaz entzuteko ez dute arazorik, baina aukera izan behar dute euskaraz hitz egiteko itzulpenik egin gabe edo bietan jardun gabe.

Bizikidetzaren baitan dauden hainbat kontu ezagutzeko, aurki jardunaldi batzuk egingo ditu Udalak eta han izango da gaia bera gertuagotik ezagutzeko aukera.

## 'Mozkorra parregarri' euskarazko lehen opera eta zigilu erakusketa izango dira San Anton jaietan

San Anton jaietan askotariko ekintzak egongo dira herrian: erakusketak, kirola, umeentzako jarduerak, antzerkia, musika eta baita biak batuko dituenik ere.

Gaur, hilak 15, *Mozkorra parregarri*, euskara hutsean emandako lehen opera komikoa izango da 20:30ean Herriko Antzokian.

Xabier Maria Munibek idatzia da obra hori. Bergaran Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen sustatzaile nagusia izan zen. Elkar-tearen sorreraren 250. urteurrenaren harira musikaren esparruko Bergarako talde batek berriz taularatu zuen iaz opera hori, euskara hutsean. Sorreran abestiak euskaraz kantatu zituzten eta elkarriketa gehienak gaztelaniaz egin. 1973an Anastasio Albisu lazkaotarrak libretoa euskarara itzuli zuen eta hartan oinarritu dira moldaketa egiteko.

### Dekoratu egokiak

Bi ekitaldi izango ditu operak. Lehenengoan Txanton Garrote mozkorra bere lagun martintxoren zapata-dendara mozkorra pasatzera joan eta emaztea sartutakoan eztabaita izango dute. Adituen esanetan eszenak berak, dekoratuak, ikuslea antzinako zapata tailer batean kokatuko du. Bigarren zatian, berriz, egongela dotore batean eta harako arropa egokiarekin esnatuko da ezustean eta Trapisondakoko markesa dela sinetsaraziko diote. Sinesgarriago izan dadin dekoratua ere garai hartako nobleziaren sala baten pare jarriko dute. Jantzia ere asko zaindu dute.

Kantu, musika eta antzerkirako gaitasuna erakutsiz soka lau kotea eta klabezina lagun melodia herrikoiak, zortzikoak eta doinu finak bat eginez ikuskizun umoretsua eskainiko dute.

### Zigilu-marka berezia

Bestalde, urteroko ohiturari eutsiz, aurten ere Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak zigilu erakusketa antolatu du. Zigilu-marka berezia ere prestatu du. Aurten beteko dira 300 urte San Bartolome Parrokian lehen meza eman zutela eta hori hartu dute gaitzat. "Urtero zigilu pertsonalizatua kaleratzen dugu ahal dela herriko gai batekin: herreminta makina, Ikastolaren urteurrena... Bestela naturako irudiren bat", dio elkarteko Iñaki Armendarizek.

Bi zigilu berezi ere izango dira; Parrokiaren irudiarekin bat eta Frantziskotarren komentuarenarekin bestea, biak Yulen Zabaletarenak. Gutunazal eta postal banatan jarri eta erakusketaren lehen egunean markatu ahal izango dira. Erakusketak askotariko gaiak batuko ditu, asko erlijioarekin lotuak: Loiola eta Xabier, Espainiako



'Mozkorra parregarri' operan antzinako arropak erabiliko dituzte. Arg.: Pikupe. Behean zigilu-marka Yulen Zabaletaren irudiarekin.

monasterio eta santutegiak, Erromanikoa, errosarioak...

Urtarrilaren 16an 12:30ean inauguratuko dute erakusketa eta 24ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxean. asteko egunetan 18:30etik 20:30era. Jai egunetan, berriz, 12:00etatik 12:00etara eta 18:30etik 20:30era.



# BASIC

BETAURREKO PROGRESIBOAK

197€

Uzuri
optika audio

Kontuak Ezazu harpekin erabiltzeko. Erango da beste edozein bezeroarekin.

ELGOIBAR - DEBA

Uzuri optika audio

Kontuak Ezazu harpekin erabiltzeko. Erango da beste edozein bezeroarekin.



# Elgoibarko euskararen ondarea sarean

**Gotzon Garate beka baliatu du Gotzon Barandiaranek *elgoibarreraz.eus* web-ataria egiteko eta asteon egin dute aurkezpena herritarren aurrean**

Asteon aurkeztu dute Elgoibarko Udalaren Gotzon Garate beka jaso eta Gotzon Barandiaran larrabetzuarrak egin duen lana: *elgoibarreraz.eus* web-ataria. Bekaren ikerketa esparrua euskararen ezagutza; erabilera eta kalitatea da. Euskara arloko ikerketa sustatzeaz gain, idazle eta euskaralari elgoibartarra omentzea ditu helburu.

Elgoibarko euskararen ondarea gizarteratzeko egitasmoa edo euskarria prestatzea izan da oraingo beka deialdiaren asmoa.

Ondare hori jasotzea eta gordetzea garrantzitsua delako batetik, Udalari dagokiolako horretarako baliabideak jartzea, eta denon eskura egongo den ondare bizia izatea nahi dutelako.

*elgoibarreraz.eus* web-atariaren helburua da herriko euskararen ondarea, orain arte egin eta bakoitza webgune baeen jasotakoa

–Elgoibarko euskara, toponimia, *Ahotsak* ahozko ondarea, kronika zaharrik eta *Elgoibartarren esanetan*– atari batean biltzea arloka sailkatuta, eta webgune guztiak elkarren artean lotuta, edukien arteko loturak eginez. Horrela, klik bakarrean, herriko euskararen ondarea eskura izango dugu elgoibartarrok eta beste edozeinek erabiltzeko moduan jarri dute.

## Elgoibar aitzindari

Lanaren egilea, Gotzon Barandiaran, Euskal Filologian lizentziatua da, eta euskara teknikari lanetan aritutakoa. Euskal idazle eta kulturagilea ere bada, eta arlo horietan ondarea berreskuratzen, digitalizatzen eta hedatzen eskarmentu handikoa.

Egilearen esanetan, “Elgoibarren kasuan oso nabarmena zen urte pila batean Udala eta herria ari zinetela euskararekin eta kulturarekin zerikusia zuen ondarea biltzen, baina sakabanatuta zegoela. Gainera oso sasoi ezberdinetan egindakoak zirenez formatuak ere hala ziren. Adibidez, Jabi Leonek egindako *Elgoibartarren esanetan* webgunean, programazioa eguneratu egin

behar zen edo Jesus Mari Makazagak egindako lana, ikerketa akademikoa zen eta hori dena web logika batera ekarri dut, edukia klikagarri egin eta batzuk besteekin lotu ditut”.

Ataria egitean Gotzon Barandiaranek erabiltzaileak hartu ditu kontuan. “Edozein elgoibartarrentzat funtzionalitate aldetik oso erraza da, internet askorik ezagutzen ez duenak ere oso erraz erabiltzekoa, oso klik gutxi eginda heltzen baita edukietara. Beste erabiltzaile batzuk dira euskaltzaleak, euskara edo euskal kultura

lan tresna daukatenak edo historia zaleak, Elgoibarko historia hor baitago eta euskaraz kontatua gainera. Profesionalentzat ere egunerokoako tresna oso erabilgarriak daude”.

Horri guztiari diseinu nahiko erakargarria egokitu dio edukia zutabe eta koloreka ezberdinez. “Webgune

bakoitzak badu bere kolorea, bere identifikagarritasuna. Bestalde, nahiko dinamikoa

da erabiltzailea sartzen den bakoitzean lehen orriko edukiak automatikoki berritu egiten baitira”.

Herrri gehienek egin beharko luketen gauza bat dela uste du Barandiaranek: Ondarea jaso eta ahal izanez gero atari batean bildu. “Herri askotan ondare pila bat dago urte askoan gordea, baina oso sakabanatua, beraz, herritarrek eta erabiltzaileak oso zail dauka horren ikuspegi orokor bat edukitzeko. Elgoibarren kasua aitzindaria da, ez dago Euskal Herrian Udalik horrelako lana egin duenik eta desiragarria litzateke herri guztietan egitea gure ondarea ez dadin galdu”.

Ataria prest denez, Udalak dei egin nahi die herritarrei bertan sartzera eta *salitsetzera*, orain arte ezezagunak zituzten gure herriko kontu zaharretatik gauza berri asko ikasi ahal izango dituztelako. Era berean, inguruko artean atari honen berri zabaltzea, hain preziatua dugun ondarea zabaltzeko..



*“Edozein elgoibartarrentzat funtzionalitate aldetik oso erraza da”*

## Edu Uribek 'The Spine Race' 431 kilometroko mendi lasterketan hartu du parte



Edu Uribe elgoibartarra munduko mendi lasterketa luzeenetarikoa eta gogorrenetarikoa den The Spine Race proban parte hartzen ari da, bigarrenagoz, Britainia Handian. Manchesterretik 30 kilometrora hasi eta Penino mendilerroa hegotik iparraldera zeharkatu ostean, Eskoziako Kirk Yetholm herrian amaitzen da proba hau, 431 kilometroko ibilbidea osatu ostean. Britainia Handiko ultratrail proba "basatiena" da antolatzaileen berbetan eta hotza eta iluntasuna dira mendizaleen arerio nagusiak. Edu Uribe 2014an ere saiatu zen proba hau amaitzen, baina bertan behera lagatzera behartu zuten antolatzaileek 280 kilometro eginak zituenean, eguraldi txarrak parte hartzaileak arriskuan jartzen zituela-eta. Aurtengo proba urtarrilaren 9an hasi zuten eta lerro hauek idazteko orduan ibilbidearen erdia baino gehiago osatua zuen Uribek.

## Mugertza krosari buruzko bigarren argazki lehiaketa

Mugertza krosari buruzko bigarren argazki lehiaketa antolatu du Mintxeta atletismo taldeak, Tantaka tabernaren laguntzarekin (informazio osoa: [mintxeta.com](http://mintxeta.com)). Iaz Felix Morquecho argazkilariak lortu zuen lehen saria, Polat Kemboi Arikari bigarren sailkatuari aterako argazki batekin. Mintxetakoek argazki hori bera aukeratu dute, hain justu ere, aurtengo koseko kartela osatzeko. Urtarrilaren 24an jokatuko da krosa, eta aurtengoa 73. edizioa izango da.



## Sanloko zazpi jokalarik hartu dute parte Espainiako Eskubaloitxapelketan

Infantil, kadete eta jubenil mailako Espainiako Eskubaloitxapelketak jokatzen dituzte Almerian, urtarrilaren 3tik 8ra bitartean. Sanloki taldeko zazpi jokalarik Euskadiko selekzioak ordezkatu dituzte txapelketa horretan. Horien artean, Maddi Goñi eta Nora Rodriguez jokalariek elgoibartarrek brontzezko domina lortu dute infantil mailan (ezkerreko argazkian). Julen Urruzola, June Loidi, Eneko Rubio, Oscar Gonzalez, Asier Urain eta Maria Balzategi izan dira Euskadiko selekzioarekin aritu diren Sanloko gainerako jokalariek.





## Amaitu da Mekatar-Iriondo xake txapelketako lehen fasea



Iriondo tabernan jokatzeko dihardute IV. Mekatar-Iriondo Xake Txapelketa, eta amaitu berri dute txapelketaren lehen fasea. Orain, talde bakoitzeko lehenengo laurak jokatu dute hurrengo fasea eta 5. postutik 12. postura bitartean sailkatutakoek, berriz, Kopan hartuko dute parte.

Gipuzkoako Taldekako Liga ere abian da eta elgoibartarrek Arrasate-Arlutz taldearen aurka neurtu zituzten indarrak joan den asteburuan. Lehen mailan diharduen Mekatar-Elgoibar taldeak bina berdinduta amaitu zuen bere norgehiagoka. 3. mailan, berriz, 2,5 puntu lortu zituzten elgoibartarrek eta 1,5 Arrasatekoek. Hurrengo jardunaldia etxean jokatu dute elgoibartarrek bihar, hilak 16. Gros taldea hartuko du lehen mailako taldeak eta Xaputarrak B taldearen aurka jokatu dute 3. mailakoek. 16:00etan hasiko dira partidak pista beltzean duten egoitzan.

## Gaur gauean jokatu dituzte San Anton pilota txapelketako finalak

Lagunak taldeak antolatzen duen San Anton pilota txapelketa iritsi da amaierara, eta gaur gauean jokatu dituzte finalak Ikastolako frontoian, 21:30etik aurrera. Finalak hasi aurretik Elgoibar eta Mendaroko lau pilotarik erakustaldi partida jokatu dute: Igor eta Iker Txurruka anaiek Felix Conde eta Aitor Agirrebeñaren aurka. Promesa mailako finalean Salaberriak eta Arangurenak Larena eta Salaverri izango dituzte aurrez aurre. Nagusietan, berriz, Errandoneak eta Martinezek osatutako bikoteak Ugalde eta Murgiondoren aurka jokatu du.



## Emaitzak

### FUTBOLA

Euskaduna 1 - Haundi 0  
Munibe 1 - Elgoibar 1 (Erreg.)  
Eibar 2 - Elgoibar 0 (Jubenilak)  
Elgoibar 0 - Lazkao 0 (A Kadeteak)  
Elgoibar 2 - Eibartarrak 5 (B Kadeteak)  
Elgoibar 4 - Anaitasuna 1 (Oho. inf)  
Elgoibar 3 - Amaikak Bat 2 (Inf. Txiki)  
Elgoibar 12 - Usurbil 1 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Pinseque 4 - Concepto Egile 1 (Naz B)

### SASKIBALOIA

Viento Sur Elg. 40 - Zarautz Sharks 39

### ESKUBALOIA

Alcorta Forging Group 39 - Egia 34 (Senior giz.)  
Leizaran 30 - Gabaz Elgoibar 37 (Sen. giz.)  
Berstain Banaketak 25 - Aloña 23 (Jub. mut.)  
Casa Astigarraga GYS 24 - Ereintza C 18 (Kad. neska)  
Bidassoa 13 - Bankoa Elg. 17 (kad. mut.)  
Zarautz 24 - Bankoa 30 (Kad. mut.)  
Deca 31 - Saieko 26 (Kad. mut.)  
Urnieta 34 - Deca 39 (Kad. mut.)

## Agenda

### PILOTA (Ikastolako frontoian)

Barixakua, 15 (San Anton Txapelketako finalak  
21:30 I. Txurruka/I. Txurruka -  
F.Conde/A.Agirrebeña (lagunartekoa)  
22:15 Salaberria/Aranguren - Larena/Salaverri  
(promesak)  
23:15 Errandonea/Martinez - Ugalde/Murgiondo  
(Nagusiak)

### ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 17  
12:30 Concepto Egile - Mahastiak Labastida

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 16  
11:30 Elgoibar - Urki (Oho. Kadeteak)  
16:30 Elgoibar - Bergara (1. erreg.)  
Domeka, 17  
09:30 Elgoibar - Amaikak Bat (Benj.)  
10:30 Elgoibar - Amaikak Bat (Benj.)  
11:30 Elgoibar - Amaikak Bat (Aleb.)

### SASKIBALOIA (Olaizaga kiroldegian)

Zapatua, 16  
16:00 Viento Sur Elgoibar - Don Jabugo Ensanche  
Erroibide (2. probintzial maila)

### ESKUBALOIA

#### Olaizagan

Zapatua, 16  
10:00 Ikus - Eibar A (Infantil neska.)  
11:15 Murgil - Aloña (Inf. mut.)  
12:30 Bankoa - Deca (Kad. mut.)  
Domeka, 17  
10:00 Cometel - Aiala B (Inf. neska.)  
11:15 Dario Bus - Aloña A (Inf. neska.)

### IMHn

Domeka, 17  
09:45 Sukia Elg - Pulpo (Inf. mut.)  
10:45 Sukia Elg - Pulpo (Inf. neska.)

**LANA.....****Eskaerak**

Adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke.  
638 338 816

Adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Esperientzia handia eta erreferentziak dauzkat. Interneta moduan aritzeko prest.  
631 506 763

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest: etxeetan, tabernetan, portaletan... Sukaldari laguntzaile lanak ere egingo nituzke. 628 738 472

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak orduka egiteko prest. 27 urte. Esperientzia dut. 632 372 864

Pintura eta obretan esperientzia handia. 35 urte. Merke lan egiteko prest.  
634 245 882

Pertsona euskalduna etxeko lanak egiteko edo eta umeak zaintzeko prest. Ordutegi malgua.  
605 741 485

Adineko pertsonak zainduko nituzke, orduka edo interna moduan aritzeko pres-tutasuna. Erabateko disponibilitatea. Gida-baimena daukat. 631 343 232

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak egiten edo lantegietan ere lan egingo nuke. Orduka lan egiteko prest. 667 301 325

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka lan egiteko prest. 632 687 874

Adineko pertsonen zaintza eta etxeko garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo jardunaldi erdira goizetan.  
602 419 142

Adineko pertsonen zaintza eta etxeko garbiketa lanak egingo nituzke Elgoibar inguruan. 640 340 848

Adineko pertsonen zaintza eta etxeko garbiketa lanak egingo nituzke.  
617 571 210

Sukalde laguntzaile lanetan aritzeko prest, garbiketa lanak ere egingo nituzke.  
636 882 838

Garbiketarako edo adinekoak zein umeak zaintzeko prest. 632 454 417

Garbiketarako edo adinekoak zein umeak zaintzeko. 631 748 977

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest, baita orduka ere.  
685 263 228

Lehen Hezkuntzako umei eskola partikularrak emateko prest. 644 297 578

Garbiketa lanetarako prest nago.  
626 603 673

Adineko pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest.  
722 554 395 / 602 419 148

Adinekoak zaindu edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest.  
606 354 982

Adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest.  
661 064 027

Interna moduan lan egiteko edo gauzez orduka zaintza lanak egiteko prest.  
632 408 771

**Eskaerak**

Pertsona bat behar da lantegi batean makinan lan egiteko, marrazketa eta autocad ezagutzak beharrezkoak dira. Berehala hasteko.  
671 555 268

15-30 urte bitarteko mutil gaztea behar da larunbat arratsaldeetan (18:00-21:00) beste mutil gazte bati konpainia egiteko. 615 787 118

**ETXEBIZITZAK.....****Salmenta**

Etxebizitza saltzeko premia! Zenbatekoa negoziagarri. Bernardo Ezenarro 4,1.C. Trastelekua eta garajea ditu.  
943 740 140

**Alokairua**

Pertsona arduratsua eta lanarekin etxebizitza bila Elgoibarren. Gehienez 400€ko alokairua ordaintzeko prest.  
626 879 255

Alokairuko etxebizitza merke baten bila nabil Elgoibarren. 628 014 327

**GARAJEAK.....****Salmenta**

Garaje itxia salgai Sigmako industria-gunean, ehiza eta arrantza dendaren azpian. 28 m<sup>2</sup> eta bi solairu. Oso zabal-bala. Autoa eta motoa gordetzeko lekua, garbitokia eta bainugela. Sarrerako ate automatikoa urrutiko agintarekin. 651 525 602

**LOKALAK.....****Alokairua**

Xagua taberna alokatzen da, San Frantzisko kalean. 605 741 485

**BESTEAK.....****Salmenta**

Idotorbe elkarterko bazkide partaide-tza salgai, oso modu onean.  
943 742 586



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



### **Eraikin baten sustatzaileak etxebizitza edo lokal bat kontratu pribatu bidez salduko balu Eratze Titulua aldatu ahal izango luke?**

Lehendabizi zehaztu behar da ea salerosketa pribatuaren dokumentuaren sinadurak jabetza-aren eskualdatzea eragiten duen. Gure legediaren arabera, jabetza baten eskualdatzea gerta dadin bi baldintza beharrezkoak dira:

- Kontratua firmatua izatea.
- Kontratuko ondasuna entregatua izatea; entrega hori egiazkoa edo sinbolikoa izan daiteke. Benetakoa ondasuna fisikoki ematea da; sinbolikoa, berriz, giltzak edo notario aurrean sinatutako salerosketa eskritura publikoa ematea. Baldintza horiek bete ezean, eroslea ezingo da etxebizitzaren jabetzat hartu. Beraz, sustatzaileak ez du eragozpenik izango Eratze Titulua edo Estatutuak moldatzeko.

Sustatzaileak Eratze Titulua edo Estatutuak moldatuz gero, agian salerosketa kontratu pribatuari dagozkion eginbeharrak ez lituzke beteko. Beraz, erosleak derrigortu ahal izango du etxea edo lokala aurrez adostutako baldintzetan, betebeharrak eta kontratuak erregulatzen dituen araudiaren babespean ematea.

**AHOLKUA:** Jurisprudentziaren interpretazioaren arabera, dio ez dela beharrezkoa etxebizitza ematea eroslea jabetzat hartzeko eta ondorioz, bere onespena beharrezkotzat jotzeko.

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749







Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira  
BARRENEko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Iker**, dagoeneko 4 urtetxo. Muxu potolo bat familiakoen eta bereziki Lan-derren partez.



Zorionak, **Sare**, 7 urte bete dituzulako. Familia eta bereziki Unai eta Olaiaren partez.



Zorionak, **June**, 7 urte bete zenuelako. Asko maite zaitugu! Patxo handi bat familiako guztien partez.




Urtarrilaren 7an 7 urte. Zorionak, **Elur!** Muxuak denon partez.



Zorionak, **Ibon**, zure 6. urtebetetzean. Ander, Mikel eta Xabiren partez.



Zorionak, **Julen!** Urtarrilaren 13an 2 urte bete dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Ibon**, zure 7. urtebetetzean! Primeran ospatu zure eguna asteburu honetan. Muxu bat familiaren partez.



Zorionak, **Noa!** 4 urte beteko dituzu eta datorren astelehenean! Muxu potolo bat etxeko guztien partez.



**Axular**, zorionak! 5 urte potolo ilusioz beteta festa giroan ospatuko ditugu Igandean. Patxo handi bat familiaren partez.



Zorionak, **Maren**. Gure larrosak lau lau, belarritik tirau. Asko maite zaitugu. Zure familia.



Zorionak, **prinzesa!** Familia osoaren partez eta bereziki Gerhard eta Maialenen partez!



Zorionak **potxolos!** 4 urtetxo bete dituzue, jarrai ezazue holako txapeldun! .



Zorionak **hirukote** zuen urtebetetze egunetan, 15, 17 eta 30ean 82, 12 eta 5 urte beteko dituzuelako. Musu handi bana familiakoen partez.



Zorionak, **Manex**, eta patxo haundi bat etxeko guztien partez atzo 8 urte bete zenuelako.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€  
ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

## IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HHO (2015ean eta 2016an jaiotakoak), otsailetik ekainera  
hasteko, matrikulazio aldia zabalik urtarrilaren 19tik 29ra



elgoibar ikastola



[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)  
943 744441



IKASTOLA ezagutzeko aurkezpen bilera urtarrilaren 19an, 18:00etan



## 15 BARIXAKUA

**15:00-19:00** Ludotekako bazkidetza egiteko aukera. Urtariletik abuztura 30€. Familia ugariek eta 2. seme-alabek 21€. Ongizateko zenbait programetako erabiltzaileek 9€. Urte guztian. Astelehenetik ostiralera 15:00etatik 19:00etara. Ludotekan.

**19:00** Hitzaldia: Zein da alkoholismoak familian duen eragina? Hizlaria: Al-Anon elkarteko ordezkariak eta Marcos doktorea. Kultur Etxeko sotoan.

**17:30** Parrokiako jaiotza. Barixakuan 17:30etik 20:30era. Zapatuan eta domekan, 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era. San Bartolome parrokiako gelan (sarrera Lekueder parke-tik). Urtarrilaren 18ra arte.

**22:30** Zinegiro Goritan-Sutegiko filmak: *Kaze tachinu*. Sutegixa gaztetxean.

## 19 MARTITZENA

**12:30** Juan Mugerza LXXIII. Nazioarteko Krosaren aurkezpena. Udaletxean.

## 22 BARIXAKUA

**11:00** San Bizente Eguneko prozesioa eta meza. san Rokeko ermitan.

**21:30** Zinegiro Goritan-Sutegiko filmak: *The Thing* filma. Sutegixa gaztetxean.

**21:30** Bideo foruma: *Loreak* (gaztelaniaz). Antolatzailea: Haizea. Dinamizatzailea: Loredi Salegik gidatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## Eguberrietako zozketak

### KATXALIN ELKARTEAREN LOTERIA:

**66.418** zenbakiak saria du Gabonetako loterian. Txartel bakoitzeko 12,5 euro jaso daitezke Sabadell-Guipuzcoanon.

### TXANKAKUA ZOZKETA

1)	<b>78.038</b>	(ordezko zenbakia 05.257)	500€
2)	<b>94.345</b>	(ordezko zenbakia 80.251)	500€
3)	<b>38.177</b>	(ordezko zenbakia 03.988)	100€
4)	<b>37.423</b>	(ordezko zenbakia 33.012)	100€
5)	<b>32.074</b>	(ordezko zenbakia 18.765)	100€
6)	<b>94.130</b>	(ordezko zenbakia 54.160)	100€
7)	<b>65.711</b>	(ordezko zenbakia 32.485)	100€
8)	<b>00.490</b>	(ordezko zenbakia 40.119)	100€
9)	<b>87.854</b>	(ordezko zenbakia 43.442)	100€
10)	<b>77.123</b>	(ordezko zenbakia 56.759)	100€

## Nabarmenduak

### Sahararako janari bilketa,

Urtarrilean

Otsailak 27 koordinakundeak, Saharar Ilargi Gorriak eta Frente Polisaiok Euskal Herrian duen ordezkariak janari-bilketa antolatu du Mendebaldeko Saharar errefuxiatuen alde. Beraz, Eibar-Sahara elkar-teak eta Elgoibarko Sahararen lagunek jakinarazi dute urtarrilaren bukaerara arte jasoko dituztela arrosa, pasta, lekaleak, azukrea, atun latak, olio eta sardina latak, aurten baita konpresak ere. Bilketa BMn eta Eroskin (Bernardo Ezenarron eta Santa Anan) jgingo dute.



## Pakita Arrillaga Arrillaga

2015eko urtarrilaren 8an hil zen, 75 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu  
gure bihotzetan.**

Etxekoak





# SAN ANTON JAIAK

Urtarrilak 15,16 eta 17

Zinea (Herriko Antzokian)

## 15 BARIXAKUA

**19:00** *Poloniako Argiak* erakusketaren inaugurazioa. Urtarrilaren 22ra arte. Kalegoen plazan.

**20:30** Opera komikoa: *Mozkorra parregarri*. Herriko Antzokian.

**21:30** Pilota partidak: Ikastolako frontoian.

## 16 ZAPATUA

**11:30-14:00** eta **16:30-19:30** Umeentzako parkea. Kalegoen plazan eta Aita Agirre plazan (euria eginez gero, Elgoibar Ikastolan).

**12:30** Zigilu erakusketaren inaugurazioa. *San Bartolome parrokiaren 300. urteurrena*. Zigilu-markatzeko berezia urteurrenaren inguruan. Erakusketa urtarrilaren 24ra arte. Ordutegia: astegunetan,

18:30etik 20:30era eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara, eta 18:30etik 20:30era. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

## 17 DOMEKA

### *San Anton Eguna*


**11:00** Meza nagusia, San Bartolome Parrokiako Abesbatzak abestua.

**12:30** Kontzertua: Debako Banda. Antolatzailea: Emudafe. Herriko Antzokian.

**16:30** Familia Antzerkia: *Hor konpon Mari Anton*. Lanku produkzioak. Herriko Antzokian.

**17:30** Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, Herriko Dultzaineroekin.

**19:00** Idien arteko desafio: Arroako Etxetxoren eta Larraulgo Kizkurraren idiak. Sigmako probalekuan.



## 'Spectre'

16 Zapatua, 19:00

22:15 (Jatorrizkoa azpittuluekin)

17 Domeka, 19:00

18 Astelehena, 21:30

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G  
U  
A  
R  
D  
I  
A  
K

**09:00 - 22:00**

- 15 Barixakua ORUESAGASTI
- 16 Zapatua BARRENETXEA
- 17 Domeka BARRENETXEA
- 18 Astelehena IBAÑEZ
- 19 Martitzena GARITAONANDIA
- 20 Eguaztena ETXEBERRIA
- 21 Eguena FERNANDEZ
- 22 Barixakua YUDEGO

**22:00 - 24:00**

Astelehenetik domekara  
ETXEBERRIA (Elgoibar)  
Santa Ana, 1 Tel.: 943 740 140

**24:00 - 09:00**

IRAUNDEGI (Eibar)  
Fermin Calbeton, 19  
Tel.: 943 201 110

\* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel.: 943 751 384

### Kontsumo txikiko BEROGAILU ELEKTRIKOAK

Siliziozko metagailua  
Wattio gutxi, konfort termiko handiagoa.



### LG TELEBISTA

43LF510V

20 KUOTA INTERESIK GABE  
INT 0% UTB 0%

**349€**

17,45€/hilabete



## APARTEKO ASTEA

20 HILABETE  
INTERESIK GABE  
INT 0% UTB 0%

**MILAR BIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)



Julen Ansola

### Eider Iriondo



Negu hotza zen kanpoan.  
Gure amonak elkartuta  
famiako emakumeak sutondoan genbiltzan  
Bitartean, gure amak  
baserriko labe zaharrear  
sartzen zituen egin berri genituen ogi-masak.

Nire esku txiki eta leunek  
amonaren esku gogortuetatik ikasiaz  
eta osagai guztiak mahai gainean,  
lurrezko ontzian jarrita dugu arto irina,  
ur beroa eta gatzarekin nahastuz, landuz,  
lortu dugu masa.  
Zapla ta zapla, kolpez kolpe,  
eskuak berotuaz  
hasierako pilota itxuratik  
opil borobil eta finfina dugu  
zartaginean erretzeko prest.

Zartagina berotzen duen sua  
bezain bizirik dago  
gure baserria  
gure familia  
osagai hauek eta beste horrenbestez egina;  
aitonak eraikitako etxea,  
zaindutako lur eta basoak,  
amonak zaindutako etxea,  
landatutako baratze eta loreak,  
etxeoandre itzela.  
Gerra garaiei ere aurre egin zieten bi begirada.  
Ilusio eta gogoz, elkarrekin, piztuta izan ziren bi begirada.

Orain, urtero elkartzen gara su honen bueltan,  
Beraiengatik eta gure ondorengoetatik,  
labea bero mantenduko dugu,  
Urteroko zita pasata ere, suak pizturik dirau.

*“Zartagina berotzen duen sua bezain bizirik dago gure baserria”*






II. URTEURRENA

## *Luis Arrieta Barrenetxea*

2014ko urtarrilaren 21ean hil zen, 84 urte zituela.

***Gure ondotik  
joan zara,  
baina betiko izango zaitugu  
gure bihotzetan.***

Zure sendiak



## *Cipriano Salegi Eizagirre*

2016ko urtarrilaren 12an hil zen, 90 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Itziarko semea  
Goixenan jaiua.  
Gaztetatikan morroi  
aritutakua.  
Mendian, baserrian,  
Sigman sendotua.  
Familiak, lagunek  
denek maitatua.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

## *Felisa Lariz Garate*

2015eko urtarrilaren 17an hil zen, 93 urte zituela. Haren oroimenez  
I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilak 16,  
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren  
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.

***Laster arte ezpainetan,  
utzi gaituzu penetan,  
orain gure ametsetan,  
bizirik zaude benetan,  
zeruko izarretan.***



# Elgoibarko Izarraren aldeko TONBOLA

## Erregaluak zuentzat direlako!

Abenduaren 24an banatu gabe geratu ziren erregaluak zozketatu ditugu.

Saridunek urtarrilaren 31ra arteko epea izango dute Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen bulegotik pasa eta erregalua jasotzeko. Egun hori pasa ondoren, erregalua ordezkorentzat izango da.

ERREGALUAK	SARIDUNAK	ORDEZKOAK
Eroski: otarrea	Nare Argarate	Idoia B.
Azpeleta: lanpara	Jon Mendez	Beñat Bilbao
Moma: bufanda	Begoña Sorazu	Idoia Badiola
Txillarre: otarrea	Nahia	Nora Cornejo
Eroski: txanpain-botila eta konfit-a	Nora Trebiño	Dorleta Arozena
Colchoneria Lagunak: manta	Amaia Zabaleta	Josune Berasategi
Skandalo: legginsg-a	Mari Kruz	Idoia B.
BM: Nintendo DS	Julen Garate	Iban Maruri
BM: Nintendo DS	Ane Izeta	Ramon Torrella
Ametsa: bonoa	Ibare	Maite Iriondo
Gabi: bonoa	Haizea Alkiza	Nagore Alvarez
Ibai-Ondo: bonoa	Maidier Lazkano	Mari Kruz Intxausti
Iñigo Lariz: kamiseta eta zinta	Ander Osoro	Oier Tapia
Errigora: otarrea	Ana Bereziartua	Nagore Tadeo
Mahats: bonoa	Julen	Nora Miguez
BM: labana-jokoa	Andoni	Isabel Cano
Alkorta enpresa: ardo-botila	Adolfo Martin	Alain Alvarez
Sahatzu: saltxitxoia	Santos	M. Sol eta Arrate
BM: kafe-jokoa	N.Gonzalez	Santos
Emilia Nogales: poltsa	Jon Etxeberria	Maidier Lazkano
Olalsa: erreminta-kaxa	Itziar Leiaristi	Eneko Aldasolo
Magi bitxiak	Ane	Manuel Nieto
Markel Bergara: kamiseta	Ander	Javi Rodriguez
Jasone Osoro: Ezekiel liburua	Santos	Xua Uranga
Jasone Osoro: Ezekiel liburua	Begoña Sorazu	Jose Jauregi
Napoka Iria: 2 CD	Maidier Carril	Ainhoa Andonegi
Mintxeta Atletismo Taldea: bonoa	Ane Gutierrez	Unai Barrenetxea
Beitia Arriola hortz-klinika: bonoa	Ekain Etxeberria	Pako Idiakez

Saridunoi telefonoz deituko dizuegu, txartelean telefonoa azaltzen bada; eta ordezkoei ere bai, saridunak erregalua jasotzen ez badu.



Oharra: aurrekoan ahaztu egin zitzaigun, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu, batetik, AEK euskaltegiari, tonbolarako erregaluak emateagatik, eta, bestetik, Jasone zerbitzu-grafikoari, gure lan-eskarien aurrean erakutsi duen prestutasunarengatik.